

Herritarren zerbitzura dagoen eGobernantzako gida berria

2011/01/11

Joan zen azaroan, **Kaleidos.red-ek** antolatutako “**Hurbiltasuna, Partaidetza eta Herritartasunari buruzko Europako I. kongresuan**”

[1] “eGobernantza, herritarren partaidetza eta berrikuntza” gida aurkeztu zen, **Tokiko berrikuntza agenda** ekimenaren barnean.

Elkarlan honen helburua izan da gida praktikoa, erraz eta didaktikoa sortzea hainbat kontzeptu funtsezkoen inguruan, horien artean Gobernantza, Herritarren parte-hartzea, Berrikuntza eta IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia), elementu horiek gobernu lokala gobernantza modu berrietara aldatzeko tresna bideratzaile gisa hartuta, Gardentasunaren eta Parte-hartzearen printzipioetan oinarrituta.

Gidak Gobernantza eta Herritarren partaidetza eta berrikuntzaren inguruko definizioak jasotzen ditu eta berrikuspen didaktiko labur bat egin du IKTak Gobernantza ahalbidetzeko tresna gisa egun duten egoeraren inguruan (galdera-erantzunen formatuan planteatuta).

Ondoren, balizko bi agertoki aurkezten dira, hurbiltzeko modu gisa: lehenengoan, IKTen bidezko lankidetzarako gune birtuala deskribatzen da, eztabaiden bidezko parte-hartze prozesu presentzialen euskarri, aukerak areagotzen arazoak eta gutxitzen dituen eta bigarreanean, sortuta dauden komunitate birtualekin lankidetzan jarduteko gunea.



eGobernantzaren argazkia

[1] www.coepcongress.com